

Urnietako Udala*Ayuntamiento de Urnieta**Gipuzkoa*

**2005EKO EKAINAREN 27KO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 27 DE JUNIO DE 2005**

Akta zenbakia: 9/2005**Bilera data:** 2005-06-27**Bilera mota:** Ezohiko osoko bilkura**Deialdia:** Lehenengoa**Ordua:** 17:00-17:25**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia**Acta nº:** 9/2005**Fecha:** 27-06-2005**Tipo de reunión:** Pleno extraordinario**Convocatoria:** Primera**Hora:** 17:00 – 17:25**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento**Bertaratutakoak:****Alkatea:** Florentino Ugalde Atxaga**Reunidos:****Alcalde:** Florentino Ugalde Atxaga**Zinegotziak:**

Maria Isabel Vaquero Montero
 Jose Luis Aramendi Goikoetxea
 Jose Maria Aldanondo Ugalde
 Gaspar Esnaola Agesta
 M. Teresa Pagazaurtundua Ruiz
 Hermenegildo Gonzalez Moran
 Consuelo Frutos González
 Jose Guirado Novo
 Juan Maria Tomasena Alzuri
 M. Asuncion Guerra Alonso

Concejales:

Maria Isabel Vaquero Montero
 José Luis Aramendi Goikoetxea
 Jose Maria Aldanondo Ugalde
 Gaspar Esnaola Agesta
 M^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz
 Hermenegildo González Morán
 Consuelo Frutos González
 José Guirado Novo
 Juan Maria Tomasena Alzuri
 M^a Asuncion Guerra Alonso

Ezin etorria adierazi dute:

Maria Ángeles Iriondo Múgica
 Jose Maria Mugica Heras

Ausentes, que se han excusado:

Maria Ángeles Iriondo Múgica
 Jose Maria Mugica Heras

Bitarteko idazkaria:**Beatriz Garate Cortabarría****Secretaria interina:****Beatriz Garate Cortabarría****Aztergaiak:**

1.- Egape Ikastolaren aloban Bigarren Hezkuntzako eraikinerako gutxienez 5.000 metro koadroko orube bat erreserbatzeko eta etorkizunean handitzeko aukera izateko akordioa.

Orden del día:

1.- Acuerdo de reserva de una parcela de al menos 5.000 metros cuadrados en contacto con la Ikastola Egape que acogerá la construcción del nuevo edificio de secundaria así como posibles ampliaciones.



2005EKO EKAINAREN 27KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 27 DE JUNIO DE 2005

1.- Egape Ikastolaren aloban Bigarren Hezkuntzako eraikinerako gutxienez 5.000 metro koadroko orube bat erreserbatzeko eta etorkizunean handitzeko aukera izateko akordioa.

Alkateak hartu du hitza esateko aurreko astean Hezkuntzako batzordean tratatu zutela gai hau eta jarraian hitza eman dio EAJ-EAko bozeramalea den M^a Isabel Vaquero Monterori. Honek esan du 2003ko azaroaren 26an ospatutako udalbatzan martxan jartzear zeuden arau subsidiarioetan eskola erabilerako lurzorua kalifikatzea eta Eusko Jaurlaritzaren eskura jartzea, honek Bigarren Hezkuntzako eraikuntza berria eraiki ahal izateko, aho batez erabaki zela. Urte eta erdi beranduago, berriro udal batzarra honetan biltzen direla, udalak eskolarekin eta herriarekin duen konpromezua berresteko, herriko hiri planeamendua definituko duten arau subsidiarioak aurrera eramateko, eta honekin batera, aurrerapenean zehazten den eskolarako lur eremuarekin beraien adostasuna azaltzeko. Erredaktoreak aurrerapena diseinatzeko ari zirenean zenbait bilera burutu zituztela, eskolako ordezkariak erredaktore eta udaletxean diren alderdi politikoetako ordezkariarekin, proiektu honetan interes ezberdinen adostasunak bat egin zezaten. Proiektu honetan pausu berri bat ematen dutela gaurkoan, beraien konpromezua ondorengo izanik:

“Alde batetik, gure adostasuna azpimarratu aurrerapenean zehazten den lur-eremuarekin, eta bestetik adostasun hau jakinarazi Hezkuntzako Delegaritzari, bai Unitate Teknikoari bai eta delegatuari, aurrerapenaren berri ofizialki emanaz.

Eskola berria Urnietako Udalaren proiektu, helburu bezala defendatzea.

Proiektu honen baitan lan-ildoak definitu eta aurrera egiteko, eratuta dagoen Hezkuntza


1.- Acuerdo de reserva de una parcela de al menos 5.000 metros cuadrados en contacto con la Ikastola Egape que acogerá la construcción del nuevo edificio de secundaria así como posibles ampliaciones.

Ha tomado la palabra el Alcalde para decir que este tema se trató en la Comisión de Educación de la pasada semana y a continuación le ha dado la palabra a la portavoz del PNV-EA M^a Isabel Vaquero Montero. Esta ha dicho que en el Pleno celebrado el día 26 de noviembre de 2003 se acordó por unanimidad calificar suelo para uso escolar en las normas subsidiarias que se iban a poner en marcha para poder ser edificado el nuevo edificio para Educación Secundaria y ponerlo a disposición del Gobierno Vasco. Año y medio más tarde se vuelven a reunir en Pleno para ratificar el compromiso adquirido con el centro escolar y con el pueblo para llevar a cabo las normas subsidiarias que van a definir el planeamiento urbanístico del municipio y a la vez para mostrar la conformidad con la parcela destinada para el centro escolar que se detalla en el avance. Cuando los redactores estaban diseñando el avance se mantuvieron varias reuniones con ellos; los representantes del centro con los redactores y con los representantes de los partidos políticos con representación en el Ayuntamiento, para llegar a acuerdos entre los diferentes intereses entorno a este proyecto. Que hoy dan un nuevo paso en este proyecto siendo este su compromiso:

“Por un lado mostrar nuestra conformidad con la parcela de terreno que se detalla en el avance y por otro hacer saber oficialmente esta conformidad con el avance a la Delegación de Educación, tanto a la Unidad Técnica como al delegado.

Defender el nuevo centro como proyecto-objetivo del Ayuntamiento de Urnieta.

Utilizar la Comisión de Educación creada en función de este proyecto para definir las



2005EKO EKAINAREN 27KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 27 DE JUNIO DE 2005

Batzordea erabiltzea. Orain bezala, guraso, zuzendaritza eta alderdi politikoen presentziarekin”.

M^a Isabel Vaquero Monterok esan du hau dela botatzera ekarri dutena, Hezkuntza Batzordean adostasuna egon zela eta beraren ustetan nahiko ondo biltzen dituela batzorde horretan tratatu zena eta gurasoek aurkezturiko eskaerak. Jarraian, Alkateak hitza eman die gainontzeko taldeei beraien jarrera azal dezaten.

PSE-Eeko zinegotzia den Hermenegildo Gonzalez Moranek hartu du hitza Maribelek akordioan agertzeko irakurritako guztiarekin erabat ados daudela eta eskola publikoari eta Bigarren Hezkuntzako zentroari euren erabateko babesa adierazi nahi diotela esateko, izan ere, hezkuntza herri baten bizitzarako oinarritzakoa dela irizten dute. Hezkuntzak gure kultura aberasten duela adierazi du eta horretarako faktore guztiak bete behar dira; batetik zuzendaritzak, irakasleek, eskola kontseiluak eta guraso elkarteek egiten duten lana, eta horretan jarraitzea animatzen dituzte, eta bestetik herriaren beharrak zaindu behar dituzte, bere erakundearen babesa. Horregatik, euren ustez, faktore guztiak lortzetik aldentzen dituen aurrera eraman nahi duten proiektua da: Bigarren Hezkuntzarako gune berria. Guztien artean beharrezkoak diren pauso guztiak eman behar dituzte helburu hau egi bihurtu dadin eta printzipio, balore eta besteekiko errespetuan aberastuko den hezkuntza publiko duina izateko. Instalazioak egokiak eta duinak izatea zati garrantzitsua dela ere esan du; era berean, proiektu honekin aurrera jarraitzeko beharrezkotzat jotzen diren batzordeekin ere jarraitu nahi dute.


Jarraian EB zinegotzia den Juan M^a Tomasena Alzuri zinegotziak hartu du hitza esandakoarekin ados dagoela adierazteko, EBak

líneas de trabajo y avanzar como ahora con presencia de padres-madres, dirección y Partidos Políticos”.

M^a Isabel Vaquero Montero ha dicho que es esto lo que traen para que sea votado, que hubo acuerdo en la Comisión de educación y que considera que recoge bastante bien lo que se trató en esa comisión y las solicitudes de la asociación de padres. A continuación el Alcalde ha dado la palabra al resto de los grupos para que muestren su posición.

Ha tomado la palabra el concejal del PSE-EE, Hermenegildo González Morán para decir que están totalmente de acuerdo con lo leído por Maribel para plasmar en el acuerdo y que quieren manifestar su total apoyo a la escuela pública y al nuevo Centro de Educación de Secundaria, ya que consideran que la educación es fundamental para la vida del pueblo. Ha expresado que la educación enriquece nuestra cultura y que para ello se tienen que dar todos los factores; por una parte la labor que realizan tanto la dirección, los profesores, el consejo escolar y la asociación de padres, que animan a que sigan con dicha labor, y por otra parte, su apoyo como institución que debe velar por las necesidades del municipio. Es por ello que consideran que lo que leñ aleja de conseguir todos los factores es el proyecto que pretenden llevar a cabo: el nuevo Centro de Secundaria; deben dar todos los pasos necesarios entre todos para que este objetivo lo hagan realidad y tener una educación pública digna, que se enriquezca en principios, valores y respeto a los demás. Ha dicho también que parte importante es que las instalaciones sean adecuadas y dignas; también pretenden seguir manteniendo cuántas comisiones se consideren oportunas para seguir con este proyecto.

A continuación ha tomado la palabra el concejal de IU, Juan M^a Tomasena Alzuri para decir que está de acuerdo con lo expresado, que



2005EKO EKAINAREN 27KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 27 DE JUNIO DE 2005

eskola publikoa erabat babesten duela; irrikatu, eraginkor eta zuzena den eskola publiko hori egi bihurtu eta amaitu arte prozedura honekin jarraitzeko dagokion batzordearen funtzionamendua bere osotasunean onartzen duela ere esan du.

Ondoren PPko zinegotzia den M^a Asuncion Guerra Alonsok hartu du hitza bere taldetik eskola publikoari babesik zintzoena emateko; eskola kontseilua zoriendu du egindako ahaleginagatik eta lehenengo urrats hau lortzeagatik. Maribelek Udalbatza honetan irakurritakoa erabat babesten duela esan du; bestetik lehenengo unetik asko interesatu zaion gaia izan dela eta gaiarekin interesatua jarraituko duela, beraz, ahal dituen laguntza, bilera eta batzordeetarako prest dagoela.

Alkateak botazioa egitea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 11 (5 EAJ-EA, 4 PSE-EE, 1EB, 1PP).

Kontra: 0

Abstentzioak: 0

2005eko ekainaren 23an egindako Hezkuntza, Euskara, Haur eta Gazteriako Informazio Batzordean gai hau landu eta berari buruzko argibideak eman zirela kontutan hartuta.

Bozketa ondoren, Udalbatzak, gehiengo absolutua osatzen duten kideen aldeko botoaz, hartu du ondorengo

AKORDIOA

Lehenengoa.- Alde batetik gure adostasuna azpimarratzea aurrerapenean zehazten den lur-eremuarekin, eta bestetik adostasun hau jakinaraztea Hezkuntzako Ordezkaritzari, Unitate

por parte de IU hay una defensa a ultranza de la escuela pública; ha dicho que acepta íntegramente el funcionamiento de la Comisión correspondiente, de cara a seguir la marcha de este procedimiento hasta que se finiquite y sea una realidad esa escuela pública ansiada, eficaz y correcta.

Después ha tomado la palabra la concejal del PP, M^a Asuncion Guerra Alonso para expresar desde el grupo popular su más sincero apoyo a la escuela pública; ha dado la enhorabuena al Consejo Escolar por su empeño y por conseguir este primer paso. Ha dicho que apoya totalmente lo que ha leído Maribel en este Pleno; por otra parte que ha sido un tema que le ha interesado desde el primer momento y que seguirá interesada en el mismo, así que está dispuesta para todas las comisiones, reuniones y colaboraciones posibles.

El alcalde ha propuesto someterlo a votación, obteniendo el siguiente resultado:

A favor: 11 (5 PNV-EA, 4 PSE-EE, 1 IU, PP).

En contra: 0


Abstenciones: 0

Teniendo en cuenta que se trató y se informó sobre este punto en la Comisión Informativa de Educación, Euskera, Infancia y Juventud celebrada el 23 de junio de 2005.

Tras la votación, la Corporación, con el voto a favor de los miembros que conforman la mayoría absoluta, ha adoptado el siguiente

ACUERDO

Primero.- Por un lado mostrar nuestra conformidad con la parcela de terreno que se detalla en el avance y por otro hacer saber oficialmente esta conformidad con el avance a la

Urnietako Udala*Ayuntamiento de Urnieta**Gipuzkoa*

2005EKO EKAINAREN 27KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 27 DE JUNIO DE 2005

Teknikoari nahiz Delegatuari, aurrerapenaren berri ofizialki emanaz.

Delegación de Educación, tanto a la Unidad Técnica como al delegado.

Bigarrena.- Eskola berria Urnietako Udalaren proiektu, helburu bezala defendatzea.

Segundo.- Defender el nuevo centro como proyecto-objetivo del Ayuntamiento de Urnieta.

Hirugarrena.- Proiektu honen baitan lan-ildoak definitu eta aurrera egiteko, eratuta dagoen Hezkuntza Batzordea erabiltzea. Orain bezala, guraso, zuzendaritza eta alderdi politikoen presentziarekin.

Tercero.- Utilizar la Comisión de Educación creada en función de este proyecto para definir las líneas de trabajo y avanzar como ahora con presencia de padres-madres, dirección y Partidos Políticos

Ondoren, Azkorteko zuzendariak hitza eskatu du esateko informazio batzordean aho batez esan zutela guztien asmoa zela legealdia bukatzeko falta den denbora honetan arauak aurrera ateratzea eta galdetzen du ea posiblea den asmo hori berrestea: alderdi guztiak ahaleginak egitea epealdi honen barruan arauak aurrera ateratzeko eta helburu nagusiak, eskola barne, lortzeko.

A continuación ha pedido la palabra el Director de Azkorte para decir que en la Comisión Informativa todos habían dicho por unanimidad que era intención el sacar las normas adelante en el periodo que falta par agotar la legislatura y pregunta si es posible reafirmar esa intención: que todas las partes intenten sacar adelante las normas en esta legislatura y se consigan los objetivos principales, incluida la escuela.

PSE-Eeko zinegotziak den Hermenegildo Gonzalez Moranek hartu du hitza arauak agortuta daudela eta berriak egin behar direnarekin guztiak bat daudela esateko.


Ha tomado la palabra el concejal del PSE-EE, Hermenegildo González Morán para decir que todos están de acuerdo en que las normas están agotadas y que hay que hacer unas nuevas.

Ondoren EBko zinegotziak, Juan M^a Tomasena Alzuri, bere borondatea prozedura ahalik eta gehien azkartzeko beharrezko kudeaketa guztiak egitea dela esan du; dokumentu nagusian desadostasunak egongo direla ere aintzat hartu behar dela esan du baina taldeak ados daudela Bigarren Hezkuntzarako izango den eraikinerako izendatutako lursailarekin.

Después el concejal de IU, Juan M^a Tomasena Alzuri ha dicho que su voluntad es realizar todas las gestiones para acelerar lo más posible este proceso; también ha expresado que hay que tener en cuenta que habrá discrepancias en el documento general, pero que todos los grupos están de acuerdo en la asignación de terreno para la nueva escuela de secundaria.

Ondoren, PSE-EEko bozeramalea den M^a Teresa Pagazaurtundua Ruizek eskatu du hitza eta guztiak eskola publikoa ahalik eta baldintza onenetan garatu ahal izateko proiektua aurrera ateratzearekin ados daudela esan du, hori bai, arau subsidiarioei buruz orokorrean euren iritzi politikoa dute eta logikoki arauak bere osotasunean neurtu beharko dira, izan ere, ez

A continuación ha pedido la palabra la portavoz del PSE-EE, M^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz, quien ha expresado que todos ellos están de acuerdo en que salga adelante el proyecto para que la escuela pública se pueda desarrollar en las mejores condiciones posibles; ahora bien, con respecto a las normas subsidiarias en general tienen sus opiniones



2005EKO EKAINAREN 27KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 27 DE JUNIO DE 2005

zaio bigarren hezkuntzari bakarrik begiratu beharko, beste gai batzuk ere egongo dira. Eurek, aurrera eramateko, ahal duten guztia egingo dutela esan du.

Ondoren EAJ-Eako bozeramalea den M^a Isabel Vaquero Monterok hartu du hitza irakurritako idatzian arau subsidiarioak aurrera ateratzeko konpromezua hartzen dutela agertzen dela esateko, hala ere, ezin du esan denak ados jarriko diren ala ez baina badaki herriak duen gabezieta bat hezkuntza dela; bere ustez legealdi honetan atera behar dute aurrera, izan ere, herriarekin zuzenena hartutako konpromezu bat da.

Azkenik PPko zinegotzia den M^a Asunción Guerra Alonsok eskatu du hitza eta gainontzeko zinegotziak esan duten bezala arau subsidiarioak agortuta daudela eta berriak egin eta onartu behar direla esateko; lasai egon daitezkeela hezkuntzarako lursailari dagokionean, izan ere, aho batez onartu dute eta gainontzekoa eztabaidatuko da baina arauak aurrera aterako dira beste aukerarik ez dagoelako; orain ideia politikoekin edo talde bakoitzak herrian dituen beharrekin bat zer datorren ala ez ikusi beharko da.

Azkenik Azkorteke zuzendariak oso baikor baloratzen du Udalbatzak hartutako konpromezua eta Bigarren Hezkuntzarako zentro berri bat onartzeko konpromezu hau errespetatzea eskatzen du.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du ohiz kanpoko udalbatza hau, goian adierazitako egunean, arratsaldeko bostak hogeit gutxiagotan, eta nik, Urnietako bitarteko idazkariak, hala egiaztatzen dugu alkatearen oniritziarekin.

Stua.: Beatriz Garate Cortabarría
Bitarteko idazkaria

políticas y lógicamente las normas habrá que valorarlas en su conjunto, porque no sólo hay que mirar por la educación secundaria, sino también por otras cuestiones. Ha dicho que ellos van a hacer todo lo posible para que salgan adelante.

Después la portavoz del PNV-EA, M^a Isabel Vaquero Montero ha dicho que en el escrito leído ya aparece que se comprometen a sacar adelante las normas subsidiarias; lo que no pueden decir es si se van a poner todos de acuerdo, pero saben que uno de los déficit que tiene el municipio es la educación, entonces ella considera que lo deben sacar adelante esta legislatura, ya que es un compromiso directo con el municipio.

Finalmente ha pedido la palabra la concejal del PP, M^a Asunción Guerra Alonso para decir que, como han expresado el resto de concejales, las normas subsidiarias están agotadas, hay que hacer unas nuevas y aprobarlas; que pueden estar tranquilos con respecto a la parcela del tema educación, que es lo que hoy han aprobado por unanimidad, el resto se debatirá, pero las normas saldrán adelante porque no queda otra; habrá que ver ahora lo que se ajusta a las ideas políticas o a las necesidades que cada grupo crea que tiene el municipio.

Por último el director de Azkorte ha dicho que valoran muy positivamente el compromiso adquirido por el Pleno y que exigen que respeten este compromiso para aprobar un nuevo Centro de Secundaria.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo las cinco menos veinte del día indicado en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Stua.: Florentino Ugarte Atxaga
Alkate-lehendakaria